

Santa Maria berriro argiztatuko da **UMBRA** Light Festival jaialdiarekin

Otsailaren 14an, 15ean eta 16an, **UMBRA** Light Festivalen edizio berri bat egingo da. Laugarren urtez jarraian, hiriko argi-artearen proposamen interesgarriak eramateaz arduratuko da ekimena, eta argi-proposamen horietako biren esparrua gure Katedrala izango da.



Oraingo honetan, Santa Mariakoarekin batera, Gasteizko beste bi kanpandorre enblematikotan ere egingo da instalazio hau, eta argi infinituaren sortek zerua zeharkatuko dute, denboraren joana markatuz eta arteak, bere adierazpen gorenean, bakerantz gida gaitzakeela gogoraraziz. Gaueroko hitzaurre gisa, Bake-kanpaiak bidelagun izango dute herritarrek beren ibilbidean.

Horietako lehena **Bake-kanpaiak** deitzen da, Juan Gomez-Cornejo eta Carlos Torrijosena, eta jaialdiaren IV. edizio honen leloarekin zuzenean lotuta dago: artea bakea da. Modu horretan, adierazpen artistiko horren bitartez, itxaropen- eta harmonia-mezua transmititu nahi da. 2022an, UNESCOk kanpaien eskuzko ukitua Gizateriaren Ondare Immaterial izendatu zuen. Historikoki, ekitaldi hori erlijio-erritualekin nahiz gizarte-ekitaldiekin lotuta egon da.



Bigarrena Jou Serraren **Range in between** da, munduaren, pertsonen eta espazioaren arteko harreman soziokognitiboaren funtsezko tresna gisa argia aztertzen duen instalazioa. Laserraren argiak materialekin elkarrengaitan du, argi zuri sorta bat espektro prismatiko batean zatituz. Ondorioz sortzen diren izpiak norabide ezberdinetan sakabanatzen dira, ehundurak eta koloreak erakutsiz. Etengabeko aldaketaren ñabardurei eta zaugarritasunari buruzko dantza da, eta arrotzarekin eta kodetu gabekoarekin nola erlazionatu hausnartzera gonbidatzen gaitu.



Urtarrilaren 31n, Ebanjelizazioarako Dikasterioko idazkaria den **Mons. Fortunatus Nwachukwu** izan genuen bisitan. Aurretik, Mons. Fortunatus-ek hitzaldi bat emana zuen Teologia Fakultateko Areto Nagusian: "Ebanjelizazioa mundu modernoan, 2025eko erretiro-urtean: Gabileen eliza", fedearen egoeran eta Elizarentzako etorkizuneko erronken inguruan oinarritua.

umbra
LIGHT FESTIVAL

2025 | 02 | 14,15,16
VITORIA-GASTEIZ. 19-23h

umbrafestival.com
#umbrafestival

Kudeaketa eta Ekitaldiak
Direction & Production
Argia3

Bakete
Patronatzaile
Main Partners
EUSKADI
Basque Country

elias
LAFITZA
605

araba-álava

VITORIA
GASTEIZ

Más información en umbrafestival.com

Santa Marian duela milioika urtetako sekretuak aurkitzen dira

ATLANTIKOIA
ATLÁNTICO



Plaka Iberiarra duela 65 milioi urte inguru.

**Absideen inguruan egindako indusketa-
ren bidez, arkeologiak zein arkitektoak
harrituta utzi zituzten ezusteko datuak
eskuratu ziren. Zehazki, tamaina handi-
ko fosil baten hondakinak aurkitu zituz-
ten. Natur Zientzien Museoarekin kont-
sultatu ondoren, Inoceramus bat bezala
identifikatu zen, eta itsas trikuen aztar-
nak ere aurkitu zituzten.**



Itsas trikuen Micraster-aren eskala-adibidea

Kokapena dela-eta, eta azkar ez degradatzearen, aurkikuntza dokumen-
tatu eta estali egin zen, babesteko. Hala
ere, interesgarria iruditzen zaigu muinoko
lehen 'biztanleen' historia partekatzea;
beraz, aurkikuntza hori eskaintzen dugun
bisita gidatuaren edukietan sartzea
erabaki genuen.

Duela 80 milioi urte, eremu hori Tetis
itsasoaren azpian zegoen, eta, bertan,
Kanpaniako kaierak sortu ziren. Garai
hartan, klima epela zen, eta itsas
hondoetan organismo ugari bizi ziren;
horietako askok fosil moduan iraun dute
gaur egun arte.


Nabarmenen artean itsas trikuak eta
Inoceramus-ak daude. Itsas trikuak,
beraziki Micraster espezieak, bihotz
forma zuten, eta arantza luzez estalita
zeuden. Bestalde, Inoceramus-a bi
kuskuko molusku handi bat zen, muskuilu
baten antzekoa, eta 1,5 metrotik gorako
luzera izatera irits zitekeen. Fosil horiek
duela milioika urtetako itsas bitzta
ezagutzeko leiho liluragarria eskaintzen
digute, iragan urrun eta misteriotsu
batekin konektatzearekin batera.

Orain badakizu Gasteizko Santa Maria
Katedralak duela milioika urtetako

sektuak gordetzen dituela Eraiki hau,
altxor historikoa eta arkitektonikoa ez
ezik, iragan geologikorako ataria ere
bada.



*Inoceramus-aren erreprodukzioaren irudia,
katedralerako bisita gidatuan ikus daitekeena.*



Itsas trikuen Inoceramus-aren eskala-adibidea

Bilerei, kontaktuei eta bisitariei dagokienez, balantze ona **Nazioarteko Turismo Azokan**

Beste urte batez, **Santa Maria Katedrala** Euskadiren erakargarrietako bat izan da **Fiturren**. Pabiloiak 2025eko stand instituzional onenaren saria jaso du, eta bertara hurbildu dira 12.000 pertsonatik gora, Lurraldeko hainbat produktu turistikorengatik galdezka. Horrela, aurreko edizioko kopurua gainditu da. Gainera, negozio-bilerak eta parte hartu duten enpresak gehitu dira, gure lurraldeak turismoaren sektorean duen erakargarritasun eta ahalmen handia erakusten duten harreman profesionalak.



JARRAI GAITZAKEZU: